

URTE GEROAGO

RAMÓN DE LA SOTA ETA HAREN GOBERNU EGITASMO ABERTZALEA, EHUN URTE GEROAGO (1917-2017)

1. NOR ZEN RAMÓN DE LA SOTA? ZERIKUSIRIK, GARAIKIDEA ZEN ON JOSÉ MARÍA ARIZMENDIARRIETAREKIN?

Bilboko XIX. mende amaierako eta XX. mendeko garapen ekonomikoari lotuta agertzen zaigu de la Sota abizena.

Izan ere, XX. mende hasieran, azken gerra karlistaren ostean hasitako industrializazio-prozesu indartsuak aurrera egin zuen Bilbon eta bere komarkan, etapa desberdinak izan arren. Gainera, bizitza ekonomikoaren ardatzak ez ziren bakarrik banka, trenbideak, meatzaritza edo ezkerraldeko industria siderometalurgikoa... 1900. urtetik aurrera, enpresa handi berriak sortzeaz gain (Euskalduna ontziolak, ontzi-enpresak...), beste sektore batzuetako enpresa ertainak ere agertu ziren (paperaren edo energiaren sektoreetan, batik bat), meatzaritza agortzen ari zen bitartean.

Horrelako garapen ekonomikoetan, gizakiak zeresan berezia izaten du, baliabide eta faktore materialez aparte. María Jesús Cava historialariak aipatu bezala, «*la larga historia de la industrialización en el espacio del bajo Nervión está repleta de una casuística*

en la que el factor humano adquiere tanta o más relevancia que los elementos puramente materiales. Socialmente configura conductas entre las que cabe destacar un cierto talante inquieto, un espíritu incansable, curioso, trabajador, sagazmente intuitivo, predispuesto hacia los negocios».

Bada, halako izaera aipa daiteke de la Sota abizenaren inguruan. Gure Ramón de la Sota y Aburto, Bizkaiko familia ospetsu batean jaio zen. Ramón de la Sota y Llano (*sir Ramón de la Sota*, gerra ostean Erresuma Batuko gobernuak *Knight Commander or the Order of the British Empire* izendatu ostean) eta Catalina Aburtoren hamahiru seme-alabetatik bigarrena zen. Sir Ramón XIX. mende amaierako eta XX. mende hasierako enpresaburu garrantzitsuenetarikoa zen, eta Bizkaian, orduko enpresa-proiektu handi gehienetan hartu zuen parte, enpresaburu, ontzi-jabe, eta bankari trebe horrek. Bestalde, aitaren aldeko aiton-amonak Alejandro de la Sota eta Alejandra de Llano ziren, eta amaren aldekoak, Manuel de Aburto eta Marcela de Uribe. Industriaren goreneko aldi modernizatzailea bizi-tzen ari zen familia-eredua osatzen zuen de la Sota leinuak: tradizioa, kristau-sentimendua,

EBA GAMINDE EGIA

ZUZENBIDEKO DOKTOREA ETA
DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO
MERKATARITZA ZUZENBIDEKO
IRAKASLEA

diziplina, lanari zegokionez... Eta testuinguru hauxe izan daiteke, hain zuzen ere, Arizmendiariarekin hauteman daitekeen lehenengo antzekotasuna, egoera nahiko parekoa baitzen, beste giro eta lurralde batean kokatuta.

Izan ere, Arizmendiarieta kontuzko paradigma izan da euskal ekonomian. Kristau jatorri nabaria zuen "Esperientzia kooperatibo" deitutakoaren buru izan zen, eta esperientzia hori nazioko eta nazioarteko erreferente zalan-tzaezin bihurtu da. Apaiz euskaldun gehienak tradizionalistak izan arren, eta ez nazionalistak, baziren kontrako kasuak ere, euren artean, on Jose Mariarena, eta horregatik aipa daitezke zenbait parekotasun, de la Sota eta Arizmendiarieta helduaren artean.

Arizmendiarieta landa-giroan jaio eta hazi zen, baserriko morala eta kristau ohiturak tarte zirela, haren ama Tomasaren eskutik. Protagonista bi horien artean, 28 urteko aldea egon arren, heldutasunean garaikideak izan ziren, eta umetatik xurgatutako bizipe- nek geroko garapena markatu zuen bi-bien kasuan. Oyarzabal-ek Arizmendiarietaren inguruan aipatu bezala, «*el niño es un proyecto de hombre que se va perfilando en la vida poco a poco. Diríase que ya en los primeros años comienza a aflorar el código genético de una persona, tanto en el aspecto físico como en el temperamental y caractereológico*», eta baieztapen hori bertatik bertara aplika dakioko de la Sota jaunari ere.

Kristautasunaz aparte, merkataritzako-heziketa aipa daiteke Ramón de la Sotaren bigarren ezaugarri nagusi moduan. Egin-eginean ere, hainbat belaunalditako

negozio-gizonen familia batean, merkataritzako heziketa berez eta zuzenean transmititzen zen belaunaldiz belaunaldi, eta horixe gertatu zitzaion gure protagonistari ere.

Zehatzago esanik, politikari eta finantzagizon bizkaitarra, Sir Ramón de la Sota eta Llanoren semea, Getxon jaio zen 1887. urtean. Gaztetan Resurrección María de Azkueren ikaslea izan zen, baina 1904an Ingalaterrara joan zen ikastera. 1912an Itsas ingeniarietza hidraulikoaren karrera amaitu zuen Londreseko *King's College* ikastetxe ospetsuan, eta bertan jarri zen harremanetan mundu zabaleko korronte sozial, politiko eta kulturekin. 1913. urtean Bilbora itzuli zenean, Eusko Alderdi Jeltzalearekin harremanetan hasi eta afiliatu egin zen. 1917tik 1919ra, Bizkaiko Foru Aldundiko lehendakari izendatu zuten, eta tarte horretako ekintzak eta programa dira bereziki interesatzen zaizkigunak, eta jarraian jorratuko ditugunak.

Bestalde, *Junta de Cultura Vasca* izenekoaren sortzaileetako bat izan zen, eta horren babesean sortuko ziren gero Euskaltzaindia, Bilboko Orkestra Sinfonikoa, eta baita Arkeologia eta Pintura Museoak ere. Horrez gain, Euskal Ikasketen Kongresua antolatu zuen Oñatin, 1918an, euskal kulturaren garapenean ezinbestekoak izango ziren erakundeak sorraziz. 1925eko urte-amaieran utzi zuen diputatu-kargua.

1937an bere aita hil zenean, haren negozioak hartu zituen oinordetza bidez, baina ez zuen astirik izan jaraunspenaz gozatzeko, ihes egin behar izan zuelako gerraren ondorioz. Frankoren tropak sartu zirenean, de la Sotaren ia ondasuntza osoarekin amaitu zuten. Aita hil ostean ere, haren ondasunak konfiskatu eta ehun milioi pezetako isuna ezarri zioten. Beste ondasun higiezin batzuez aparte, Ibaigane ere hartu zuten, Mazarredoko etxebizitza, Gobernu Militar bihurtzeko. Comisión Provincial de Incautación delakoak Espainia osoan jarritako isunik esanguratsuenetarikoa ezarri zion, EAJko kidea izan eta laguntza ekonomikoa ematea leporatuz, eta egun ere, harako zehapenaren ondorioak pairatzen ari dira.

1937an Biarritzeko "Etchepherdia" etxera joan zen bizitzera. Azken 41 urteetan, bere zereginak ez zuten zerikusi handirik enpresa-mundurekin, eta gehien maite zuenari ekin zion: itsas-kontuetan ikertzeari, kontuzko liburutegia osatuz, eta bere herrian gertatzen ari zena hurbiletik bizitzeari. *Laburdi Buru Batzar-a*

**HOGETA HAMAR URTEKIN
DIPUTAZIOAREN ARDURA
NAGUSIA HARTU ZUENEAN,
EUSKALZALEZ ONDO
INGURATURIK, BAZEKIEN
EUSKARAREN ALDE FERMIKI
JOKATU BEHAR ZUELA
EUSKALDUN BERRI HONEK**

sortzen lagundu zuen, Bizkaiko itsas-bizitzaren inguruan idatzi zuen, eta "Etcheperherdia" liburu, margolan, paper eta eskuizkribuz bete zuen.

Franco hil zenean, alabak konbentzitu zuen bueltatzeko, eta horixe zen bere asmoa, baina ezin izan zuen. Behin bakarrik itzuli zen, 1978ko apirilean, egun batzuk igarotzeko, baina 24 ordu eskas egon zen, eta ez zitzaion gustatu ikusitakoa. Urte horretako abuztuaren 5ean hil zen.

2. GIZARTEA ETA EKONOMIA BERE PROGRAMAN

Jose Antonio Arana jaunak, Euskaltzaindiaren 75. urtemugako hitzaldian aipatu bezala «*Benetako su pizgarria, suzko-jauzia eta zainetako indarra gertatu zen 1917an Bizkaiko Diputaziorako hauteskundeak eratu eta burutu zirenean*»¹. Izan ere, urte horretako maiatzaren lehen, 20 diputatutik, 11 Euzko Alderdi Jeltzalekoak atera ziren, gehiengoa lortuz. Euren artean, Ramón de la Sota Aburto jauna, maiatzaren 4ean diputatu nagusia izendatu zena, baita Luis de Urrutia lehendakari ordea, eta Felix de Landaburu zein Manuel de Eguileor, idazkariak ere. Aldi berean, 1917an Mario Aranak hartu zuen Bilboko alkatetza. Kargu esanguratsu horien bidez, jeltzaleek kementsu ekin zioten autonomiaren erreibindikazioari. Hala ere, 1919an *Liga de Acción Monárquica* sortu zen Bilbon, nazionalismoaren gorakada geldiarazteko. Maiatzaren 25ean sozialista eta errepublikanoek hautagai monarkikoa bozkatzeko konpromisoa hartu zuten, eta hauteskunderetan, nazionalistek, diputatu bakar batengatik, erabateko gehiengoa galdu zuten Diputazioan.

De la Sota jaunak lehendakaritza utzi zuen, tartean zeregin kontuzkoa burutuz, gaur arte iraun duena.

Diputatu nagusi berriaren aita zen Ramón de la Sota Llano (1857-1936), Azkueren adiskidea zen aspaldidanik eta euskararen aldeko ekintzak burutzeko maiz luzatu zizkion diru-laguntzak. Ramón de la Sota Aburto (1887-1978), semeak, esan bezala, bi urteren zehar jardun zuen Diputazioko lehendakaritzan, 1919. eko maiatza arte. Hautzarroan, Azkueren ikasle izan zen Jardines kaleko Ikastetxean, eta gero Institutuan, on Resurreccionez zuzentzen zuen katedran. Beraz, hogeita hamar urtekin Diputazioaren ardura nagusia hartu zuenean, euskalzaletan ondo inguraturik, bazekien euskararen alde fermuki jokatu behar zuela euskaldun berri honek.

Ramón de la Sotaren izaera, pentsamoldea eta testuingurua irudikatzen balio izan duten datu horiek bazter utzita, ekonomia eta gizartearen gaiari helduko diogu.

Programari dagokionez, izendapenaren osteko hitzaldia da lehenengo Diputazio nazionalistaren zereginak ulertzeko giltza edo gakoa². Izan ere, orain 100 urte emandako hitzaldiak argituko dizkigu bere ekintzaren ondorioak, gaur arte iraun dutenak, batez ere euskeraren eta euskal kulturaren ingurukoak.

Agintealdiaren helburuak zehaztu aurretik, de la Sota jaunak, jarraibide edo gidalerro nagusi batzuk eman zituen, arlo guztiak ukitzen zituenak, baita ekonomia eta gizarte ere, eta horietako bi nabarmenduko ditugu:

1. Hasteko, bera alderdiaren ordezkaria zela azpimarratu zuen, eta horren esanetara zegoela: «*...no vengo para hacer una labor individual ni para hacer uso de mi criterio en la resolución de los asuntos que se planteen o presenten al fallo de esta Corporación; vengo únicamente a seguir las orientaciones políticas de la agrupación nacionalista vasca*»³.

2. Bigarrenik, garai hartan ohikoa zen bezala, erlijioaren garrantzia nabarmendu zuen, alderdiaren leloa eta izaera katolikoa gogoratuz: «*Todos conocéis el lema de la agrupación nacionalista vasca: Jaun-Goikoa eta Lagi-zarra de nuestros abuelos, Jaun-goikoa ta*

1. Arana Martija, J. A., «Euskaltzaindiaren 75. urtemuga», 1993, 15. or. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/50056.pdf>; (azken kontsulta: 2017-12-20).

2. *Boletín Oficial de la provincia de Vizcaya*, 114 zk., 1917ko maiatzak 23.

3. *Ibidem*, 494. or.

Lagi Zarra de nuestros padres, el Jaun-goikoa eta Lagi-zarra nuestros, Dios y ley vieja. Por este lema primeramente y ante todo obraremos como católicos y luego como vascos»⁴.

Atal honetan, berriro datozkigu gogora de la Sota eta Arizmendiarietaren arteko antzekotasunak, azken honentzat ere erlijioa zelako zeregin guztiaren euskarri nagusia. Berak Elizaren doktrina soziala jarraitu eta beraren postulatuak gizarte-ekintzak bihurtu zituen, orduko gizartean beste ordena bat sorrarazi nahi zuelako, kristau-enpresa erabilita, giza justiziaren eta berdintasunaren printzipio ebanjelikoak lan-mundura ekartzeko gai izan behar zen enpresa erabilita, alegia.

Horrenbestez, bere “esperientzia kooperatiboaren bitartez”, Arizmendiarietak hurbil-hurbiletik erakutsi zuen kristau-buruzagitza lehiakorra izan daitekeela, eta moralaren zein ekonomiaren arloak ez daudela elkarrengandik aldentuta; kontrara, bat datozela. De la Sota jaunak, ordea, irabazasmodun erakundeen esparruan ziharduen, kooperatibetatik urrun, eta ez zen kristau-balioetan horrenbeste murgildu, baina bai azpimarratu zuen, bere programaren hasiera-hasieran, balio katolikoen eragina eta garrantzia.

Gidalerroak aipatuta, de la Sotaren gobernu-programaren helburuak ekarriko ditugu hizpidera. «*Dividiremos nuestra actuación futura en tres grandes grupos: obras puramente educativas; obras que tienden al acrecentamiento de la riqueza; obras económicas*»⁵. Horrenbestez, hiru erronka nagusi zituen: heziketa, herriaren aberastasuna areagotzeko lanak (herri-lanak), eta ekonomia. Guk lehenengoa eta azkena jorratuko ditugu, gizarte- eta ekonomia-arloei lotuta.

Gizartearen atalarekin hasteko, esan daiteke, azpimarratzeko moduko daturik nabariena, de la Sotaren gobernuak orduko garaian ekarritako heziketa eta kultura aldaketak izan zirela. Deigarria gerta daiteke, programa horretako zereginen artean hezkuntzarena izatea lehena, eta hemen berriro jo behar, Arizmendiarietaren hausnarkeitara. Harentzat ere heziketa ezinbesteko zutabea zen, aldaketa soziala ahalbidetzeko. Berak uste zuen, eredu-aldaketa burutzeko, kultura edo pentsamoldea landu behar zirela,

4. *Ibidem*.

5. *Ibidem*.

prestakuntza tekniko eta giza-prestakuntza sendoa duten enpresaburuak behar zirela. Horrenbestez, ezinbestekoa ziren heziketa eta trebakuntza, baina ez lanbide-heziketa hutsa, heziketa integrala baizik, ezagutza tekniko eta moralak uztartzen dituen. Hori guztia bideratzeko, heziketa-zentro berezia sortu zuen 1943ko udan, *Escuela Profesional de Mondragón* deituko zena, hiru beharrezan nagusi asetzeko: batetik, enpresaburuena, langile kualifikatuak behar zituztelako; bestetik, langileena, trebakuntza horri esker irtenbide profesional egokia lortu ahal zutelako, bai eurek, baita euren seme-alabek ere; eta azkenik, gizartearena, ikasleen formazio moralala ere landuko zelako.

De la Sotak, berriz, ez zuen gizarte-eredua aldatu nahi, baina bai hezkuntza-eredua hobetu, xede berdina erdiesteko: «*es necesario que la enseñanza que en aquellos Centros se da (Escuelas de Artes y Oficios-ei buruz), sea más práctica, con objeto que de ellos salgan los obreros cultos y adiestrados que la moderna industria requiere...*»⁶.

Egin-eginean ere, orduko ikerketek erakusten zuten Bilbo eta Bizkaiko alfabetizazio-tasa oso altua zela, Estatuarekin konparatuz. Zernahi gisaz, de la Sotaren jomuga heziketa hobetzea ez ezik, euskaraz hezitzea ere bazen, baserritar gazteen heziketa bihurtuz bere kezka nagusia. «*En la enseñanza primaria creemos que debe llevarse a cabo un cambio absoluto y radical en la forma de practicarla. Todos sabéis que en la parte rural de Vizcaya hay una masa importante de población joven que no conoce el castellano, que habla simplemente el euskera; a esta juventud se le enseñan las primeras letras en castellano. Y resulta que como no entienden lo que se les enseña, salen de las Escuelas sin saber leer ni escribir; es decir, que han perdido el tiempo. Es preciso que a esta parte de nuestra población se le enseñe en euskera*»⁷.

Deskribatutako baldintzetan bete zan, esaterako, Arizmendiarietaren heziketa. 1919an, 4 urterekin auzoko elizaren lokaletan zegoen eskolaurrera joan zen, euskara izanik tresna pedagogiko nagusia. Gero, Diputazioak Bizkaian eraikitako 100 auzo-eskoletako batean jarraitu zituen bere ikasketak. Bertan,

6. *Ibidem*, 495. or.

7. *Ibidem*, 494. or.

**DE LA SOTA JAUNAK,
ORDEA, IRABAZASMODUN
ERAKUNDEEN
ESPARRUAN ZIHARDUEN,
KOOPERATIBETATIK URRUN,
ETA EZ ZEN KRISTAU-
BALIOETAN HORRENBESTE
MURGILDU, BAINA BAI
AZPIMARRATU ZUEN,
BERE PROGRAMAREN
HASIERA-HASIERAN, BALIO
KATOLIKOEN ERAGINA ETA
GARRANTZIA**

Instrucción religiosa y moral izeneko ikasgaia zen euskaraz ikasten zen bakarra (hots, doktrina katolikoa), beste guztia, ordea, gaztelera jorratzen zen. Idazketa eta irakurketa ere gaztelaniaz egiten zen, euskara ahozko-adierazpiderako utzita, gaztelaniaren osagarri moduan. Horrela, gaztelania ahul eta “euskarizatu” bategatik abiatuta, emeki-emeki Arizmendiari eta bere ikaskideek nolabaiteko elebitasuna lortu zuten, euren adore eta kemenari esker. De la Sotaren programak, ordea, transito edo ibilbide hori erraztu nahi zuen. Eta ez hori bakarrik, Goi Mailako irakaskuntzaren inguruko proiektuak ere bazituen, berak aintzatetsi arren, Euskal Unibertsitateari zegokionez, ideia abian jartzea zela euren asmo bakarra.

Bide bertsutik, baziren jomuga berberak erdiesteko erakundeak ere, gerra aurreko goraldi nazionalista eta *Euskal Pizkundearen* testuinguru honetan. 1924an, ulerbidez, hizkuntzalari, idazle eta euskaltzainak biltzen zituen *Kardaberaz Akademia*⁸ eta izen bereko aldizkaria sortu zituen Manuel Lekuonak, euskal kultura bultzatzeko. Bertako seminarista eta idazleak ostegun goizetan batzen ziren euskara lantzeko. Idazleok *Ekin*, *Argia* eta *Euzkadi* aldizkarietan kolaboratu zuten 1936ra arte, euskal kulturaren aldeko zeregin esanguratsua burutuz. 1970ean berriro jarri zen abian, zuzendaritza berberaren menpe. Baina gerra garaian ere ez zen bazter utzi euskararen aldeko lana.

8. Egun Kardaberaz Bazkuna deitutakoa, 1924n Gasteizen sortutako idazle euskaldunen elkartearen izena. Sortu zenean *Academia del V. Cardaveraz* edo *Kardaberaz-Akademia* izena hartu zuen, Manuel Lekuonaren zuzendaritzapean, Gasteizko Apaiztegian. (<http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/kardaberaz-bazkuna/ar-54380/>; azken kontsulta: 2017-12-20).

EAJko Miliziei lotutako *Eguna* aldizkariak, berbarako, 1937ko urtarrilaren 1ean ikusi zuen argia. Egunkari hori euskara hutsean idazten zen, eta gerraren kronika osatzen zen, euskal nortasuna, erlijioa eta gizarte auzia jorratzen zituzten artikuluekin. Egunkari hori gobernu eta herritar euskaldunen arteko komunikazio-tresna bihurtu zen, batez ere, batailoi-tako soldaduekin. Pizkunde garai honen inguruan, hauxe aipatu zuen Lourdes Otaegik, euskal filologak: «*el Renacimiento Vasco aportó la primera producción cultural de alto nivel... Es la primera vez que estos escritores piensan en abrirse al mundo, que aunque escriban en un idioma minoritario, están en primera línea y actúan al mismo nivel que los demás, y trabajan con ese espíritu. En este caso, ambición y logros se unieron y el fruto de esa unión es un valor literario que permanece en pie. Desde ese punto de vista, podemos decir que crearon un tesoro que aun hoy en día podemos valorar*»⁹.

Guztiarekin, gaurko testuingurutik begiratuta, Ikastolen Elkarte sendoa, ibilbide eta eskarmentu handiko Euskal Unibertsitate Publiko bat daukagunean, eta Unibertsitate pribatuetan ere euskaraz ikasteko aukera dagoenean, de la Sotaren harako guraria oharkabean igaro daiteke, baina gaurdaino heltzeko, ezinbesteko urratsa izan zen ordukoa.

Ekonomiaren alorrean, berriz, de la Sota y Aburto jaunak bi atal jorratu zituen bere programan: *Ekonomi Ituna* (Kontzertu Ekonomikoa) eta *Diputazioaren eta Estatuaren* arteko harremanak.

Lehenengoarekin hasteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Itunak betidanik sortu izan ditu mesfidantzak, bai bertan, bai gainerako herrialdeetan, zerga eta finantza harreman bereziak dakartzalako Estatuarekin. Horrexegatik, de la Sota bere hasierako hitzalditik saiatzen da mesfidantza horiek uxatzen “*El Concierto Económico no consiste en que nosotros paguemos más al erario provincial que lo que pagan al Tesoro público aquellos ciudadanos sometidos a la tributación directa del Estado. Nosotros tenemos mayores exigencias de comodidad privada y pública que esos ciudadanos y para tenerlas es preciso que paguemos, por lo menos, tanto y si es*

9. Otaegi, L., «El Renacimiento Vasco aportó una serie de escritores de alto nivel literario», 2011. http://www.euskonews.com/0596zbb/elkar_es.html; (azken kontsulta: 2017-12-20)

necesario hasta más. ... No es cuestión de pagar menos, sino de administrar mejor...¹⁰. Horrenbestez, 1878tik zegoen tresna juridiko honetaz baliatzen jarraitu zuen, frankismoak ezabatu arte. Tresna hori benetan eragingarria izan zedin, alabaina, de la Sotak kooperazioa eta elkarlana eskatzen zituen ozen: kooperazioa euskaldun guztien artean, erakunde kultural eta politikoeekin, baita alboko probintzia euskaldunekin ere.

Atal honetan berriro ikusten ditugu de la Sota eta Arizmendiarieta helduaren arteko parekotasunak. Izan ere, kooperazioa zen azken horrek sortu eta bizitako esperientziaren gakoa; bere testu eta aldarrikapenetan, behin eta berriro agertzen dira “batasun”, “kolaborazio” eta “kooperazio” hitzak, kooperazio horixe baitzen bere diskurtso, pentsamendu eta lanaren esentzia eta leivmotiv-a, berak aintzatetsi bezala: «*Nuestro criterio prevalente de hoy es acción y cooperación. Acción porque entendemos que lo que pudiéramos hacer hoy nosotros no deben hacerlo mañana otros [...]. Cooperación porque nos sentimos en concierto íntimo con las personas tanto físicas como morales sensibles a los requerimientos del bien común y máxime con las instituciones sociales alumbradas respondiendo a tales aspiraciones*»¹¹. 1960. urtean *Cooperación* izeneko aldizkaria sortu zuen, 1964tik *Trabajo y Unión* deituko zena, eta Arizmendiarieta hil ondoren, gaurko izena hartuko zuena, *TU Lan-kide*. Laburbilduz, pentsalari trebe honentzat, kooperazioa zen eragingarritasuna, lehiakortasuna zein ongizatea erdiesteko baliabidea. «*Si hay cooperación podemos ser solidarios y si tenemos solidaridad podemos progresar sin amos, es decir, en régimen de libertad y de justicia, emancipación social y económica*» adierazi zuen bere idazkietako batean¹². Eta ildo bertsutik abiatu zen de la Sota ere, Ekonomi Itunaren bitartez “hobeto administratzeko” jomugari begira: «*Naturalmente que ésta (administrar mejor) es una obra que no puede ser patrimonio del nacionalismo vasco, porque es una labor fundada en aspiraciones*

de todos los vascos. Por eso nosotros desde aquí reclamamos la cooperación de todos ellos, sobre todo la cooperación de las instituciones culturales y económicas...Es necesario contar con la cooperación y ayuda de las provincias hermanas...».

Beste alde batetik, ekonomiarekin jarraituz, Administrazio estatalaren eta diputazioaren arteko harremanak zehaztu nahi zituen de la Sotak, bere ustez harreman horiek ez zirelako behar bezala jorratu eta bideratu aurreko Diputazioetan. “*Un gobierno enteramente vasco*” aldarrikatu ostean, herrialdeenganako begirunea eta adiskidetasuna

GUZTIAREKIN, EKONOMIAREN ATALARI BURU EMATEKO, AIPA DAITEKE DE LA SOTAREKIN HASI ZELA ORAIN DELA 100 URTE, GAURDAINO IRITSI DEN BIDEA, ESTATUAREN ETA DIPUTAZIOEN ARTEKO HARREMANEI DAGOKIENEZ

aldarrikatu zituen argiro bere kargutik: «*Nosotros nos proponemos cultivar estas relaciones con el interés y asiduidad que merecen, manteniendo siempre con tesón los que creemos nuestros derechos, pero teniendo siempre en cuenta que nuestras reivindicaciones no van ni pueden ir contra los intereses de ninguna de las Regiones que integran el Estado español, ni contra los intereses del Estado mismo*».

Horrenbestez, 1876an Foruak ezabatzear sortutako pentsamolde berriari ekinez,

10. *Boletín Oficial...* op. cit., 495. or.

11. *Formación Cooperativa I*, pág. 46 (http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/mono/arizmendiarieta/lib_11.pdf , FC I 46; (azken kontsulta: 2017-12-20).

12. *Formación Cooperativa II*, pág. 123 (http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/mono/arizmendiarieta/lib_12.pdf , FC II 123; (azken kontsulta: 2017-12-20).

de la Sotak ere gogor defendatu zituen euskal nortasuna eta autonomia. Egin-eginean ere, 1917. urtean hasi zen autonomiaren aldeko lehen aldarrikapen esanguratsua, Bizkaiko Diputazio nazionalistaren eskutik, hasieran “Euskal Mankomunitate” egitura proposatuz (*«para resolver problemas que nos son comunes y para evitar ciertas asperezas que desgraciadamente han sido suscitadas, es necesario que establezcamos algún nexo común, puede ser que siguiendo las líneas de una mancomunidad»*¹³). Ordura arte, saiakera ahul bat egon zen 1914an Gobernu zentralak *Mankomunitateen Legea* berretsi zuenean, Kataluniako Mankomunitateak martxan jarritakoa. “Euzkadi” aldizkariak, modu positiboan baloratu zuen deszentralizazio administratibo hori, foruak berrezartzeko bidean. Estrategia berriaren arabera, autonomia, kate luze baten lehengo eslaboia izango zen, jomuga foruen berrezarpena izanik. Horrela, 1918an European “libre determinación de los pueblos” izeneko doktrina zabaltzen ari zen bitartean, Bizkaiko Diputazioan euskal gobernu nazionalista baten oinarriak ezartzen ari ziren.

Zehatzago esanda, Bizkaikoak bultzatuta, Euskal Diputazioak Gasteizen batu ziren 1917ko uztailean, Gobernu zentralari foruak itzultzea edo, halakorik izan ezean, “Espainiako nazioaren barruan” gauzatu beharreko euskal autonomia eskatzeko. Ildo horri ekinez, autonomia aurreproiektu baten zirriborroa adostu zuten, proposamen motela eta zehazgabea izan arren, izugarrizko aurrepausoa bihurtu zena. Guztiarekin, ekonomiaren atalari buru emateko, aipa daiteke de la Sotarekin hasi zela orain dela 100 urte, gaurdaino iritsi den bidea, Estatuaren eta Diputazioen arteko harremanei dagokienez.

3. ONDORIOAK

Guztiarekin, ondorio edo laburpen moduan esan daiteke 1917. urtea atzera bueltarik gabeko unea izan zela, euskal politikaren dinamikari dagokionez. Herria mobilizatuta izanik eta hauteskundeetan gero eta pisu handiagoa lortuz, bazirudien ezinbestekoa zela nazionalismoa aukera politiko autonomo moduan agertzea, aurreko praktikatik bereizita.

Probintzia mailan bilakaera hori azkarago burutu zen, euskal nazionalismoak 1917-19 tartean mantendu zuen hauteskunde-ofentsiba arrakastatsuari esker. Izan ere, de la Sotak lehendaritzatik zuzendu zuen politikak ez zuen zerikusirik aurreko tradizio dinastikoarekin, eta kontuzko gai berriak jorratu zituen, euren artean, ordura arte autonomiaren eretzean burututako proiektu handizale edo anbiziosoena, Diputazioen Mankomunitatea proposatuz.

Horretaz aparte, euskal Unibertsitatearen sorrera eta euskararen ofizialkidetasuna ere defendatu zituen, gaurdaino iritsi den bidean, ezinbesteko lehen harriak jarrita.

Azkenik, ibilbide horren garrantzia eta egokitasuna azpimarratzeko, 1910-1936 bitartean argitaratu zen *El Debate* egunkari espainiarrak Bizkaiko Diputazio nazionalistaren zereginari eta, zehatzago, bertako presidentearen lanari eskainitako goraiatzeak ekarriko ditugu hizpidera. Hauxe zioen egunkari horrek, 1918. urtean: *«Fiel a las convicciones de su partido, el señor Sota ha mantenido el lema de éste: Dios y fueros. ... Nuestro elogio, por esperado, podríamos omitirlo, sino fuese un deber tributarlo. En suma: que los actos de los nacionalistas en la Diputación de Vizcaya nos parecen un comienzo excelente»*¹⁴. Eta orduko hasiera arrakastatsu horri zor dizkiogu gaur egungo fruituak.

13. *Ibidem*.

14. García Escudero, J. M. *El pensamiento de El Debate: un diario católico en la crisis de España (1911-1936)*, Madril, Ed. Católica, 1983, 594 eta 595. orr.

